



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO ABENDUAREN 4KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.12.04.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and. (eri dagoelako).

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Jose Benito Lizardi Bereau jaunak aurkeztutako idatzia.
- 3.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa.
- 4.-Juan M.Indacoechea Maiz jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Goienburu karrika moldatzeko obra.
- 6.-Angulero eta Bordaxulo arteko bideko kurba moldatzeko esleipena.
- 7.-Murietako eskolaren aldeko manifestua.
- 8.-Emakumeen egunari buruzko adierazpen instituzionala.
- 9.-ADEMNA: diru laguntza eskaera.
- 10.-Alkatearen ebazpenak.
- 11.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko azaroaren 6an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-JOSE BENITO LIZARDI BERAU JAUNAK AURKEZTUTAKO IDATZIA.

Gai hau mahai gainean utzi da Udaleko arkitekto eta abokatuen txostena ailegatu arte.

3.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA.

Ikusirik Arantzako Arau Subsidiarioen lurzoru ez urbanizagarrian zenbait puntu aldatzeko proposamena.

Ikusirik horren inguruan prestatutako dokumentazioa.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) Hasiera batean onestea Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua.
- 2) Espedientea hilabete batez jendaurrean paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean argitaraturiko egunkarietan jarritako ediktuen bidez.

Ander Almandoz Indacoechea jauna ateri da bilera aretotik.

4.-JUAN M. INDACOECHEA MAIZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Juan M. Indacoechea Maiz jaunak, Ziaurtxiki alderdian, 12 akazien probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 3. poligonoko 51. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan M. Indacoechea Maiz jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

Ander Almandoz Indacoechea jauna bueltatu da bilera aretora.

5.-GOIENBURU KARRIKA MOLDATZEKO OBRA.

Ikusirik Udaleko arkitektoek prestatutako memoria Goienburu karrika moldatzeko.

Kontuan hartuz memorian ez dela ongi bildu lur bat.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udaleko Arkitektoei memoria aldatzeko eskatzea, ondoren aztertu eta erabaki bat hartzeko.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna joan da bilera aretotik.

6.-ANGULERO ETA BORDAXULO ARTEKO BIDEKO KURBA MOLDATZEKO ESLEIPENA.

Arantzako Udalak erabaki zuen Angulero eta Bordaxulo arteko bideko kurba moldatzeko aurrekontuak eskatzea.

Epearen barne proposamen hauek aurkeztu dira:

-I.M.Arrisko Igelsertza S.L.: 1.627,88 euro, BEZ kanpo.

- Peio Aguinaga Macicior jauna: 1.748,00 euro, BEZ kanpo.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) I.M.Arrisko Igelsertza S.L. enpresari aipatutako lanak egiteko esleitzea, 1.627,88 eurotan, BEZ kanpo, eta Udaleko arkitektoek egindako memorian arabera.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

7.-MURIETAKO ESKOLAREN ALDEKO MANIFESTUA.

Murietako eskola itxi da berriki.

Hori dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Murietako eskola bizirik mantentzea.
- 2) Landa eremuko eskolak bizirik mantentzea, herri txikien biziraupen eta etorkizunaren berme diren heinean.
- 3) Behin ikasturtea hasita, ikastetxerik ez ixtea eta unitaterik ez murriztea.

8.-EMAKUMEEN EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Ikusirik Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak igorritako adierazpena.

Azaroak 25 dela eta, “Emakumei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna” Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Eta helburu honek, bizitza kolektiboaren kudeaketa antolatzen eta kudeatzen diharduen instituzio publiko guztietan lehentasunezkoa behar du izan eguneroko jardunean.

Horregatik guztiagatik, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartuz.
- 2) Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.
- 3) Abian jarri, hedatu eta indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.
- 4) Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gunek komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekina eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.
- 5) Ahulenak diren guneeetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez; gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal gunekoak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.

9.-ADEMNA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartek aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Kontuan hartuz ez dagoela partidarik aurtengo aurrekontuan horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

10.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 70. ebazpenetik 72. arte).

11.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Ander Almandoz Indacoechea.



The image shows a handwritten signature in blue ink, which appears to be 'mull', written over a circular official stamp. The stamp is also in blue ink and contains the text 'ARANTZAKO UDAL' at the top and 'AIZARNON' at the bottom. In the center of the stamp is a coat of arms. A large, stylized blue ink mark, resembling a triangle or a large letter 'A', is drawn to the left of the stamp. A long, thin blue line extends from the right side of the stamp across the page.